



HEZKUNTZAKO SAILBURUAREN AGINDUAREKIN BAT DATORREN DOKUMENTUA, ZEINAREN BIDEZ AURRETIKO KONTSULTA EGITEN BAITA XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO, ESKUMENA DUEN SAILAREN TITULARTASUNeko UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO ZUZENDARITZA-TALDEEN EBALUAZIO-PROZESUA ARAUTZEN DUENA

2022ko uztailaren 15ean EHAAn argitaratu zen 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarena. Bertan, testu artikulatu oso bakar batean sartzen eta integratzen dira xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko arau guztiak, eta orain arte indarrean zegoen Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea ordezkatzen du.

Zehazki 11 artikuluan Aldez aurretiko kontsulta herritarrei hau zehazten da:

1. Xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen organoak edo zuzendaritzazentroak, testu juridiko arauemaileen proposamenak idatzi baino lehen, kontsulta publikoaren bidez bilduko du gizarteak duen iritzia. Herritarrei zuzendutako aldez aurretiko kontsulta-izapide horretan, beharrezko neurriak hartuko dira, ziurtatzeko, batetik, gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua, eta, bestetik, arautzekoa den alorrean edo sektorean berdintasuna bultzatzen duten elkarten parte-hartzea. Halaber, hizkuntza-eskubideak errespetatuko zaizkio aldez aurretiko kontsultetan parte hartzen duen orori, Administrazioako langile zein herritarra izan.
2. Aldez aurretiko kontsulta kapitulu honetan araututako prestaketa-fasean sartzen da. Izan ere, herritarrekiko interakzio izapidea da, zeina halako moldez egingo baita, non xedapenaren hartzaile izan daitezkeen pertsona guztiek aukera izango duten iritzia emateko, behar besteko epean, berau hamabost egun baino gutxiagokoa izan gabe, eta testu juridiko jakin bat onartu baino lehen.
3. Aldez aurretiko kontsultaren izapidea xedapen orokorraren izapidetzea sustatzen duen zuzendaritza-zentro edo -organoak bete ahal izango du, iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarkitaulan jarrita. Alderdi hauekin lotutako informazioa iragarriko da: arau onestearen premia eta egokitasuna, arauaren xedeak, ekimen horrekin konpondu nahi diren arazoak eta izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak; eta herritarrei gonbidapena egingo zaie iragarritako informazioari buruzko iritzia eman dezaten.
4. Artikulu honetan aurreikusitako herritarren parte-hartzearen eskakizuna betetzat jo dezake testu juridiko arauemaile bat aldez aurretik onetsi ondorengo araugintzaprozedurako instrukzio-faseko entzunaldi eta informazio publikoen izapideak. Memorian horrela jasota utzi beharko da, hala bada.



Hezkuntza Sailak Hezkuntzako sailburuaren agindu proiektua prestatzen hasteko asmoa du. Agindu horren bidez, eskumena duen sailaren titulartasuneko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeen ebaluazio-prozesua arautzen da.

Aipatutako 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenarekin bat etorriz, eta herritarrek arauak egiteko prozeduran parte har dezaten bultzatze aldera, araproiektua egin aurretik, jendaurreko kontsultarako aldi bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren web atariaren bidez, herritarren eta etorkizuneko arauaren eragina jasan dezaketen erakunde adierazgarrien iritzia jaso ahal izateko, honako gai hauei buruz

1.- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

Hezkuntza sistemaren kalitatea eta ikasleen arrakasta zuzenean lotuta daude ikastetxeen zuzendaritza-taldeek betetzen duten eginkizunarekin. Horregatik, agindu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-eginkizunen ebaluazio-prozedura arautzea, modu sistematiko, objektibo eta garbi batean.

Agindu hau Hezkuntzaren Lege Organikoan (LOE/LOMLOE) eta EAeko Hezkuntza Legean (17/2023) oinarritzen da, eta otsailaren 28ko 29/2023 Dekretua garatzen du. Testuinguru horretan, beharrezkotzat jotzen da zuzendarien lana baloratzea eta garapen profesionala bultzatzea, lidergo pedagogikoa eta elkarbizitza positiboa ardatz izanik.

Horretarako, agindu honek ebaluazio sistema duala ezartzen du:

- Ebaluazio formatiboa, agintaldian zehar urtero egiten dena. Honek hobekuntza jarraitua sustatzea, hausnarketa profesionala bultzatzea eta zuzendaritza-taldean autoebaluazioa erraztea du helburu. Prozesu honetan, besteak beste, mentorizazioa, kanpo-kontrastea eta hezkuntza-komunitatearen iritzia hartzen dira kontuan.
- Ebaluazio egiaztatzailea, agintaldiaren amaieran egiten dena, zuzendaritza-kargua betetzeko gaitasuna egiaztatzeko. Ebaluazio hau kompetentzia espezifikoetan oinarritzen da (guztira 10), eta lidergo pedagogikoa, ikasleen arrakasta, berrikuntza, parte-hartze demokratikoa edo kanpo-harremanak bezalako alderdiak neurtzen dira.

Sistema honek lau garapen-maila ezartzen ditu kompetentzia bakoitzerako: eskasa, nahikoa, finkatua eta aurreratua. Ebaluazio positiboa lortzen duten zuzendariak aitorten profesionalak jaso ahalko dituzte: agintaldia berritzeko aukera, ordainsari osagarria, baimen berezia hurrengo ikasturtean proiektu berritzaile baterako eta lekualdatze-lehiaketetan lehentasuna.

Bestalde, aginduak trantsizio-aldien kudeaketa ere jasotzen du, zuzendaritza berrien ezarpena ahalik eta modu egokienean egiteko eta lidergoaren jarraipena bermatzeko.

Laburbilduz, agindu honek zuzendaritza-lanaren ebaluazioa sistematikoki arautzen du, profesionaltasuna, gardentasuna eta etengabeko hobekuntza oinarri hartuta, eta helburua da ikastetxeen eraginkortasuna hobetzea eta hezkuntza-sistemaren kalitatea bermatzea.

2.- Onartzeko beharra eta egokitasuna

Hezkuntza sistemaren kalitatearen hobekuntza etengabea bermatzeko, ezinbestekoa da ikastetxe publikoetako zuzendaritza-lanaren jarduna ebaluatzea, ikuspegi pedagogikotik eta kudeaketatik begiratuta. Hezkuntzaren Lege Organikoak (2/2006, maiatzaren 3koa) eta EAEko Hezkuntza Lege berriak (17/2023, abenduaren 21ekoa) zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa aurreikusten dute, bai eta horren oinarriak ezartzen ere.

Zuzendaritza-taldeen lana funtsezkoa da ikasleen arrakasta akademikoa eta pertsonala bultzatzeko, ikastetxeetan lidergo pedagogikoa garatzeko eta hezkuntza-komunitatearen kohesioa sendotzeko. Horregatik, zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa ezin da izan administraziozko tramite hutsa; aitzitik, garapen profesionala eta etengabeko hobekuntza sustatzeko tresna estrategikoa izan behar du.

Horrez gain, zuzendaritza-lanaren ebaluazioak gardentasuna eta objektibotasuna bermatzeko printzipioetan oinarritu behar du, bai karguaren egokitasuna egiaztatzeko, bai aintzatespen profesionalerako mekanismo gisa. Bestetik, konpetentzietan oinarritutako ebaluazio-sistema bat ezartzeak zuzendarien lanaren dimentsio integrala kontuan hartzea ahalbidetzen du, eta, horrekin batera, berrikuntzaren kultura, lidergo partekatua eta eskola inklusiboaren bidean aurrera egitea sustatzen du.

Azkenik, otsailaren 28ko 29/2023 Dekretua garatzea premiazkoa da, bertan ezarritako oinarritzko printzipioei jarraituz, ebaluazio-prozesuak sistematizatzeko eta homogeneizatzeko. Horrela, agindu honen bidez, administrazioak berme juridiko eta pedagogiko sendoak ezartzen ditu, zuzendaritza-funtzioaren garapena sendotzeko eta hezkuntza sistemaren lidergo eraginkorra bermatzeko.

3.- Arauaren helburuak.

Arauaren helburuak honako puntu hauetan laburbildu daitezke:

- Zuzendaritza-eginkizunen ebaluazio-prozedura arautzea Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetako zuzendaritza-taldeen jarduna eta karguan jarraitzeko egokitasuna ebaluatzeko prozedura ezartzea.
- Zuzendaritza Proiektuen garapena eta jarraipena sustatzea Ebaluazioaren bidez, zuzendariak beren proiektuen helburuak nola gauzatzen dituzten aztertzea eta horien hobekuntza bultzatzea.
- Konpetentzietan oinarritutako ebaluazio integrala ezartzea Zuzendaritza-funtzioen garapen profesionala eta jardunaren kalitatea neurtzeko konpetentzia-esparru zehatza ezartzea.



- Etengabeko hobekuntza eta lidergo pedagogikoa indartzea. Ebaluazioak zuzendaritza-taldeen lidergo pedagogikoa eta ikastetxeen eraldaketa bultzatzea helburu du.
- Jardunaren aintzatespena eta karguaren berritzea arautzea. Ebaluazio positiboak zuzendaritza-kargua berritzeko aukera eta aintzatespen profesional zehatzak ahalbidetuko ditu.
- Zuzendaritza-trantsizioak planifikatzeko esparrua ezartzea. Agintaldi amaierako trantsizio-prozesuak antolatze eta ikastetxeetako jarraikortasuna bermatzeko irizpideak ezartzen dira.

4.- Bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak

Bestelako aukera erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak dagokienez, egungo testuinguruan beharrezkotzat eta egokitzat jotzen da agindu berri honen bidezko arauaketa, zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa egungo errealitateari egokitzeko eta hezkuntza-komunitate osoan etengabeko hobekuntzaren kultura sustatzeko.

Horregatik guztiagatik, kontsulta:

- Etorkizuneko arau-erregulazio horrek eragin diezaikekeen erakunde publiko eta pertsona fisiko guztiei irekitzen zaie, bai eta erakunde, entitate edo elkarteei ere.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoaren iragarkitaulan argitaratuko da, Legegunean eta Irekian.
- Hamabost egun balioduneko epea ezarriko da eragina izan dezaketen erakundeek, herritarrek eta haien erakundeek egoki iritzitako iradokizun edo ohar guztiak aurkez ditzaten.

Kontsulta publikoaren izapide hori da, beraz, une honetan egiten dena, aurreikusitako legeeskemari jarraituz. Horrez gain, arau-proiektua egin aurretik egiten da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30ko 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluek arautzen duten hasiera fasearen barruan.

381/2024 Dekretuak, azaroaren 19koak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:



Lehena. - Aurretiazko kontsulta publikoko izapidea ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoen bidez lagundutako unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako irakasleei irakaskuntzako gaitasun digitala egiaztatzekeo prozedura arautzen duen xedapen orokor baten proiektua.

Bigarrena. - Arauaren eragina jasaten duten herritarrek eta erakundeek, hala baderitzote, Agindu honetan planteatutako alderdiei buruzko iritziak helarazteko aukera izango dute hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria- Gasteizen, sinaduran zehazten den datan

María Begoña Pedrosa Lobato

HEZKUNTZA SAILBURUA